


9. Kostuen egitura

Gure enpresa aurrera eramateko hainbat kosturi aurre egin behar diegu.

Kostu finko batzuk ditugu. Kostu finkoak dira gehiago zein gutxiago ekoiztuta beti berdina ordaindu behar duguna.

- Lokal bat beharko dugu gure produktua saltzeko. 130 euro balio du gure lokala hileroko. 40 metro karratuko lokal bat da avenida Indalecio Prieto, 2, Santutxu-Basarrate, Bilbon kokatuta.



- Soldata batzuk ordaindu beharko ditugu gure langileei:
 - Leire gure enpresaren abokatuak da eta hileroko 1500 euroko soldata irabazten du.
 - Irati eta Ainara enpresaren ekonomialariak dira eta bakoitzak hileroko 1500 euroko soldata irabazten du.
 - Iñigo bezeroekin harremanetan jartzen da eta hileroko 1500 euroko soldata irabazten du.
 - Paulak inbertsio hoberena bilatzen du gure enpresarentzat eta hileroko 1500 euroko soldata irabazten du.

- Aseguru bat daukagu gure enpresarentzat. Hilero 50 euro ordaindu behar ditugu aseguru edukitzeko. Aseguru honek egiten duena da, enpresan arazorik badaude konpontzen digu arazoa aseguruak. Adibidez, gure lokalean sartzen badira eta altzariak edo ordenagailuak edo bestelako gauzak desagertzen badira lapurtu dituztelako, aseguruak kargu egiten da gastu horietaz.
- Altzairuak ere beharko ditugu lokala ondo apainduta egoteko. Lehendabizi ordenagailu batzuk beharko ditugu, bost langile daudenez, bost ordenagailu beharko ditugu. Ordenagailu bakoitzak 720 euro balio ditu eta orduan bostak 3600 euro balio dituzte. Bost eserleku beharko ditugu, eserleku bakoitzak 30 euro balio ditu eta bostak 150 euro balio dituzte. Mahaiak ere beharko ditugu eta mahai bakoitzak 70 euro balio ditu oso handiak direlako, eta bi mahai erosiko ditugu soberan sartzen garelako oso handiak direlako. Bi apalategi beharko ditugu liburu eta dokumentu guztiak ondo gordetzeko, apalategi bakoitza 100 euro balio du, orduan 200 euro balio dute biek.
- Publizitatea ere ordaindu behar dugu. Publizitatea egiten badugu gure enpresa jende gehiago ezagutuko du eta orduan bezero gehiago edukiko ditugu gure produktua erosteko. Telebistako publizitatea barra barra dago, milaka marka, milaka spot, eta azken finean, milaka minutu publizitate. Horregatik, erronka nagusia originaltasuna da. Spotak 20-30 segundo bitartekoak izaten dira, eta denbora horretan mezua igortzen eta atentzioa deitzen lortu behar dute. Laburrak, arinak eta sintetikoak izan behar dute.

Kostu aldakorrak ere ditugu gure enpresan. Kostu hau da fabrikatu edo saldutako kopuruaren arabera aldatzen direnak.

- Energiaren, uraren, telefonoaren kontsumoa adibidez izan daiteke. Lokalean dauzkagun gastu hauek ordaindu behar ditugu. Hilero uraren eta argiaren kontsumoa ordaindu behar dugu. gastuaren zenbatekoa aldatzen doa zenbat eta gehiago gastatzen dugu. Telefonoaren kontsumoa ere hilero ordaintzen da eta ere aldatu egiten da prezioa.
- Materialen edo lehengaien gastuak ere kostu aldakorrak dira. Gure enpresak erosten dio beste enpresa bati produktua eginda, eta guk saltzen dizkiegu gure bezeroei. Produktu gutxiago erosten diogu baldin eta bezeroek gure produktua gustuko badute. Orduan kostua aldatu egiten da hilero. Hasteko, 2000 kargatzaile erosiko ditugu 0.50 eurotan saltzeko bezeroei.